

LEKU ESANGURAKO POSPOSIZIOTZAKO BATZUK

Mixel Kaltzakorta Mentxaka

1. SARTAUREA

Badira elementu batzuk oraindino ondo definitu gabekoak euskara gramatiketan. Hona batzuk:

Aurre, ondo, atze, aitzin, ...

Gramatikalari batzuek posposiziotzat daukate; beste batzuek, izentzat. Auzi horretan sartuko ez naizenez artikulu honetan, *posposiziotzakoak* izendatuko ditut kategoria ondo definitu bako elementuok.

Dagoeneko eman dira gramatiketan arau batzuk zelan erabili oro har aipaturiko posposiziotzakoak. Hona, berbarako, zelako sekuentziak, besteak beste, jotzen diren okertzat:

*Gizon (andre) ondoan/aurrean

*Koldo aurrean/ondoan

eta zelakoak zuzentzat

Gizon**AREN** (andre**AREN**) ondoan/aurrean

Koldo**REN** aurrean/ondoan

Bestela esanda, erraten zaigu oker daudela honako estruktura hauek

1. *[Izen bizidun *komunak*] + [posposiziotzakoak]

2. *[Izen bizidun *propioak*] + [posposiziotzakoak]

Eta hurrengook artez, zuzen

1. [Izen bizidun *komunak* + genitibo marka] + [posposiziotzakoak]

2. [Izen bizidun *propioak* + genitibo marka] + [posposiziotzakoak]

Baina begitantzen zait genitibo marka bako egiturek ere ondo daudela, zuzenak direla kontestu jakin batzuetan behintzat. Eta horixe erakutsi gura dut artikulu honetan.

Horra, beraz, zeintzuk egitura mota izango ditudan aztergai artikulu honetan. Baina soilik erakutsi gura dut zuzen daudela estruktura ikergaiok. Eta

ez naiz sartuko ikertzen posposizitzakoak zelan erabili behar diren jeneralean, zelako gramatika-ezaugarriak dituzten.

Posposiziotzako ikergaiak berez-edo leku esangura daukate. Ez ditut guztiak ikertuko, ezpada hurrengoak edo euron baliokideak:

Aurre, ondo, atze, arte, gain, azpi

Ezarritako helburua betetzeko, lehenik eta behin (2. apartaduan) agertuko dut posposiziotzako egoera zertan dagoen euskara gramatika desberdinetan, inportanteenetan behintzat. Hots, zeintzuk gramatikak zelako arauak ematen dituzten posposiziotzakoaren laguntzan doan izen bizidun komun en edo propioen gainean, eta zelako kontestuetan eman ere.

Ondorik (3. apartaduan), erakutsiko dut erabili, erabiltzen direla egitura aztergaiak, hots, "Izen bizidun komunak+posposiziotzakoak" (3.A. azpiapartaduan) eta "Izen bizidun propioak+posposiziotzakoak" (3.B. azpiapartaduan).

Horretarako, adibideak emango ditut ugari han-hemengo idatzizkoak eta bat edo beste ahozkoak. Baita nik beren-berengi asmatuiko batzuk ere, sinagarriak eurak, erakutsiko dukedanez.

Esan dezadan, geroago argiago adieraziko dudanaren aurreragarri, uste dudala aztertuko ditudan egiturak gaitzetsita daudela gramatikalariek nahasten dituztelako euskara bera eta euskaraz kanpoko realitatea. Gauza bat da euskararen kodigoa eta besterik euskaraz kanpoko egoera. Eta gizartean jazo ezik kondizio egokiak halako egoera edo diskurso bat sortzeko, ezin, beraz, gertatu euskararen bertan. Alegia, geroago erakutsiko dudanez esaten badira "juez aurrera", "juez aurretik" eta "juez aurrean" eta abar eta ez "juez ondoan", "juez ondora" eta abar ez da euskararen bertan ezina dagoelako, ezpabere gizartean sortu ez direlako situazio egokiak erabiltzeko sekuentziok eskatzen dituzten nozioak. Geroago azalduko dut luze eta zabal.

2. POSPOSIZIOTZAKOAK ZERTAN DAUDEN

Sartaurrean esan legez, euskarazko gramatika batzuek debekatu egiten die posposiziotzako oro har izen bizidun komun en eta propioen ondorik joatea, tartean genitibo atzizkirik (-en) ez dagoela:

*Izen bizidun komunak + posposiziotzako

*Izen bizidun propioak + posposiziotzako

Hiru gramatika aztertuko ditut, nire ustez orain arteko onenak-edo, hegoaldean behintzat, eta eurotan zehaztuko da nork zer erraten duen posposiziotzako erabilerari buruz, aipaturiko eura batean zein bestean:

1. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Laburra*

2. Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan*3. R. M. Azkueren *Morfologia Vasca*

Lehenari dagokionez, Euskaltzaindiaren *Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* liburuko 469. orrialdean honako hauxe dio:

Berez lekua adierazten duten hitzen artean badira zenbait bere esanahiaren muinean beste zerbait edo norbaitekiko erlazioa ere daramatenak eta, hainbestez, posposizio gisa erabili ohi dira sarri:

- (20)gure aldean
- (21)aitaren aldamenean
- (22)perpausaren buruan
- (23)anaien artean

Ez da nahitaezkoa genitiboa:

- (24)zubi ondoan
- (25)mendi gainean

Genitiboaren marka kendu ahal izateko izenak bizigabea behar du izan (*gizon ondoan) eta ez du ondotikizenondorik hartzen ahal (*zubi handi ondoan).

Antzeko ideia ageri da gure Akademiaren aipaturiko gramatika bereko 159. orrialdean:

Posposizio batzuetan, hala ere, -en atzizkia ken daiteke. Hori gertatzen da *aurre*, *atze*, *gain*, *azpi*, *barne*, *ondo*, *alde* eta hauen kideekin eraturiko posposizioetan, izena bizigabea denean eta izenondorik gabe ageri direnean:

- (89)etxe aurrean
- (90)*Koldo aurrean
- (91)*etxe handi ondoan

Euskaltzaindiaren gramatikako aipu bietan, eta artikulua honi dagokion arloari oratuta, debekatuta dago berez leku esangurako posposiziotzakoa jartzea izen bizidunaren ondorik beronek genitibo markarik ez duela. Lehen aipuan, bizidun *komun* bidezko adibidea (*gizon ondoan) ematen zaigu okertzat; bigarrenean, bizidun *propio* bidezko adibidea (*Koldo aurrean).

Bigarren gramatikari dagokionez, hots, Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* ere antzeko ideia ageri da 100, 102 eta 103. orrialdeetan:

d) ONDO, AZPI, GAIN, AURRE, ARTE, ERDI... izenak dira

Hauk, berez, *izentzat* har daitezke, nahiz eta oso jokabide berezia izan. Lekua adierazten dute gehienbat (...)

Bestalde -eta oso inportantea- zenbait izenekin ezin daiteke osa **zubi ondoan** erako egiturarik: adibidez, izen propioekin eta gizakiari dagozkion izenekin:

andrearen ondoan eta ez ***andre ondoan**
gizonaren azpian eta ez ***gizon azpian**

baina bai,

astoaren gainean = asto gainean

Izen propioekin ere ezin da:

Andoniren aurrean baina ez ***Andoni aurrean**

Hemen mila arazo agertzen zaizkigu. Froga, honako sintagma gramatikal eta ez-gramatikaletan dugu:

Andoniren aurrean baina ***Andoni aurrean**

[+gizakia]

[+gizakia]

Andoniren bila baina ***Andoni bila**

Baina beste alde batetik hona hemen beste sintagma hauek ere:

	gizonaren aurrean		
		baina *gizon aurrean	
Eta	gizonen aurrean gizonaren bila		
		eta gizon bila	
	gizonen bila		

Adibide hauek adierazten digutenez, **bila** eta **aurrean**-en aurrean **Andoni** bezalako izen berezi batek jokabide bat zuen bitartean, **gizon** bezalako izen arruntek jokabide berezia dute. Hortaz, izenen tasunak alde batetik eta “posposizio”-aren tasunak bestetik, hartu beharko dira kontutan gauzak ondo egin nahi badira.

Hala ere **arte**-rekin ez dirudi hain hertsia denik erregela hau:

gizonen artean eta gizon artean

Bistan da bi hauek ez dutela zeharo esanahi berdina. Eta bestalde, izenlaguna -atzizkiduna baldin bada- pluralean agertuko zaigu.

Badirudi **ondo**, **azpi**, **gain** ... eta abarrekin **-en** atzizkia duen izenlaguna agertuko dela beti.

Patxi Goenagak Euskaltzaindiaren iritzi berdintsua du, baina ez berdina. Diferentzia txiki bat dago azpeitiarraren alde: onartzen du *tarte* (eta *gain* ?) erabil daitekeela zuzenean izen bizidun komunekin, tartean ez dagoela genitibo markarik.

Eta azkenik, R. M. de Azkuek diosku bere *Morfologia Vasca*-ko 406 eta 407. orrialdeetan:

600. Estos compuestos aurre, aitzin, arte, barru, ondo, oste... (...) se unen a nombres de seres animados, lo mismo que de materiales, para componerse con ellos cuando son específicos; pero no a seres individuales, a nombres propios, con los cuales no se pueden formar nombres compuestos. No decimos ni-aurrean por nire aurrean delante de mí, ni Pedro atzean por Pedrorren atzean detrás de Pedro

eta berriro oratzen dio gai berari lekeitiar gramatikariak 474. orrialdean eta esan

Nuestras posposiciones necesitan del posesivo para relacionarse con nombres propios y con pronombres, ya sean éstos personales o ya demostrativos: debajo de Antonio Antonen azpian, delante de mí nire aurrean o aintzinean, junto a nosotros gure ondoan, alrededor de ésta casa etxe onen inguruan. No se puede decir como en castellano “bajo Alejandro” Alejandro azpian, sino debajo de Alejandro Alejandoren azpian. Ante mí es siempre para nosotros “delante de mí” nire aurrean, nunca ni aurrean (1)

En cambio, con nombres no personales, no propios, aunque sean de seres animados y vengan ya escuetos, ya acompañado de adjetivos, esa desinencia se indica sin desinencia alguna, formando nombre compuesto: esku-azpian *debajo de la mano*, zubi-aurrean *delante del puente*, gizon gorri artean *entre hombres rojos...* etc.

Azkuek ere Euskaltzaindiaren iritzi berdintsua dauka izen propioen arloan, baina ez izen bizidun komunei dagokienez. Bertzalde, azkenengo arloan esandakoaren frogagarri Azkuek han-hemen ematen dizkigu *aurreren* bidezko hiru adibide behintzat, izen komunek ez dutelarik genitibo markarik, geroago ikusiko dugunez *aurreri* dagokion adibidetegia aztertzean: “Gizon-aitzinean”, “neskatilla-aurrean” eta “itsu-aurreko (aitzineko)”.

Kontuan hartuz gero hiru gramatikok zer erraten duten leku esangurako posposiziotzakoen gainean, esan dezaket bat datozela hirurok izen propioen arloan, baina izen komunenean Azkuek adierazirikoarekin ez datoz bat beste gramatika biak. Alegia, ados daude “Izen bizidun propio + posposiziotzakoak” estrukturen izen propioak genitibo marka (-en) behar duelakoan (AndoniREN aurrean). Ez daude ados “Izen bizidun komun + posposiziotzakoak” egituren. Eta berriro gomutatu nahi dut P. Goenagak salbuetsi egiten duela *arte*.

3. PROPOSAMENA

Apartadu honetan sarturrean adieraziriko estrukturen aztergai biak ditut ikerkizun:

A: Izen bizidun *komunak* + [posposiziotzakoak]

B: Izen bizidun *propioak* + [posposiziotzakoak]

Eta frogatu gura nuke artez daudela daudenetan, izen bizidunen eta posposiziotzakoen artean genitibo atzizkirik ez dagoela.

Horretarako, lehenik (3.A.-n) ikertuko dut lehendabiziko estrukturen eta, bigarrenik (3.B.-n) bigarrena.

3.A. IZEN BIZIDUN KOMUNAK + POSPOSIZIOTZAKOAK

Azpiapartadu honetan egitura ahaleginduko naiz erakusten ikergai honi dagozkion galaraziriko adibideok

*gizon ondoan/aurrean

*andre ondoan/azpian

zuzen daudela. Egitura aztergai hau jorratuko dut ondoko hurrenkeran daudelarik posposiziotzakoak:

1.AURRE/ 2.ONDO/ 3.ATZE/ 4.ARTE/ 5.GAIN/ 6.AZPI

Lehenengo agertu nahi dut erabili, erabiltzen direla aipaturiko egitura ikergaiak, frogatzat adibide franko emanaz. Gero (3.A.7-n) bertze datu batzuk emanen ditut egiazkoak batzuk eta asmatuak beste batzuk, ordura arte frogaturikoa sendoesteko.

3.A.1. AURRE (AITZIN)

Posposiziotzako honi buruzko adibide anitz daude han-hemenka.

Hona morderoa Luis Michelenaren *Orotariko Euskal Hiztegitik* aterea

Juez aurrian, ta mundubaren aotan darabillelako, gorroto deutsa. Ib. 360 (III, 363)

Medikuen guzurrak/gaiso-aurrean esanak,/... Ib.267 (III, 363)

Koñatuak, lagun-aurrian, ori lako jazokunetan ...Kk Ab I 42 (III, 364)

Emeti oi dator, ezkongeiya guzurragaz edo edo egijagaz Jutzizijagaz zamaitutia, Juez aurrera eruatia, karzelan sartutia. Ib. III 358 (III, 369)

Etorri ziran, ba, andra bijak bakaldun aurrera. Ib. 18. (III, 370)

Eraman zituzten berriz ere Xalbat eta Engrazi epaimai aurrera. Ib. 177 (III, 371)

Santua asto gainean eta Tifo asto-aurreko; laster beste guztiyak atzian utzi zituzten. Ib. 145 (III, 366)

Bakaldun aurrian eta zure aintziñian abua itxitta eukittekko aginddu zorrotzak eman dautsadaz. Otx 147. (III, 466)

Beingo baten aurkeztu zan bakandera aurrian. Otx 151. Bakaldun aurrian jaun eta aundizki guztijen erdi-erditik igaro zan. Ib. 12.

Konparituren guziak Kristen tribunal aitzinean. LC 2 Cor 5, tft.

Ta sar-erazten dute erreg-aitzineran. Ib. 144. (III, 469)

J. M. Mocoeroaren *Repertorio de locucionesen* ere bi topatu ditut:

55955. Zer? Farra egiten didak? Gogoango didak! ... Nik salatuko aut alkate-aurrera!... G-726-122,92 (II, 2224)

54066. Frantzisko asto-gañean eta Tito asto-aurreko (asto-zai) jarri ziran bidean... G-610-58,191. (II, 2150)

R. M. Azkueren liburu batzuetan ere ageri dira adibide banakak:

Gizon-aitzinean ante hombres (Morfologia Vasca,406)

Floren, uri andi nai txikietan, yaiegunez burua aizez beterik dabela dirutsu bailiran agertzen dakuzan mutil babalastoak, elizbiretako santuak baizen lerdan, neskatilla-aurrean beti irri-barrezka, (...)(Latsibi,140)

itsu-aitzineko (AN-b) (*Diccionario Vasco-español-francés*,I,441)

itsu-aurreko (B, G) (*ibid*,I,441)

Fr. Bartolomeren bat ere badakart hona:

(...). Kura jaunaren aurrera eroanda, lotsea emon gura izan arren umeari, leen bere izanda dago, ta ez deutsa ardura. Txaarrago. Alkate aurrera eroanda, egun batzuetan kartzelan eukitea, beste ainbeste. (Fr. BARTOLOME: *Sermoiak*; Iruinea, 1816-19) P. Urkizu-ren *Lengua y Literatura Vasca* (162) liburutik hartua)

Eta, azkenik, Ramon Labaien bat, idatzia Euskaldunon Egunkaria-ko zutabeaz ez dakit zein egunetako “Barrionuevoren koplak” izenekoan:

Nolabait Barrionuevo jaunak emanen dio hasiera hauteskunde kanpainari, epaile aurrean kantari hasten denean.

Ahozko euskaraz bestalde, arruntaren arruntak dira, esate baterako, hurrengo sekuentziak:

... **jende aurrean** ...

... **jende aurreko** ...

Baserri munduan ere ezin normalagoak dira ondorengoak

Itaurrean egin lan (idi-aurrean, itulean)

Itaurreko egin dut

Orain arteko adibide andanak erakusten digu “Izen bizidun komun + posposiziotzakoak” estruktura aztergaia zilegi dela euskaraz, *aurre* posposiziotzakoari dagokionez. Hots, “gizon, juez, alkate, neskatila, lagun, ... + aurrera, aitzinera, ...” sekuentzia erabili, erabiltzen dela, baina definitu gaitzeko esangura duela, zehazteko nekeza-edo behintzat. Esandako hitz-kateak erabiltzen dira gizarteaz euren eskatzen dituzten nozioak adierazteko beharra dagoelako.

Baina mundua aurrerabidean doa, egunetik egunera kontzeptu berriak sortuz. Orain artean gramatikalariek debekaturiko *gizon aurrean* edo antzeko hitz-katearen nozioa sortu ez bada, berau esatea lartxo bada ere, horrek ez du erran nahi delako sekuentzia hori edo antzekoak oker daudenik. Are gehiago, pentsa daiteke bidezkoa dela erabiltzea, emaniko frogak emanda. Aski litzateke *gizon aurrean* eta antzeko sekuentziek dauzkaten nozioak adierazteko beharrezana izatea gizarteaz, izan ere aipatu sekuentziak erabiltzeko ezinik ez dago-eta euskaraz bertan.

Eta *aurreren* bidez erraz eta ugari samar gertatzen delarik estruktura aztergaia, beste leku esangurako posposiziotzakoez (ondo, atze,...) zer debeku edukiko lukete gure egitura aztergaia baliatzeko, baldin-eta gizartean gertatuz gero beharrezko kondizioak? Izan ere, ez dago egon euskaran bertan hizkuntzazko debekurik aipatutako egiturak erabiltzeko. Oztopoa, egotekotan, hizkuntzaz kanpoan dago, realitate estralinguistikoan. Zeren-eta, gizartean ez badago -hala izanez gero- egitura aztergaiak eskatzen duen kontzepturik, ez baita sortuko euskaran berean. Euskarak berak badauka eduki ahala, gaitasuna *aurreren* adibideen bitartez frogatu dudanez, baina beharbada ez da gertatu gizartean *gizon aurrean* eta antzekoak esateko edo idazteko kondiziorik edo beharizanik. Baina hortik ez da segitzen erabil ezin daitekeenik.

3.A.2. ONDO (ALBO,ATZE,OSTE)

Zabal da euskal hiztunetan, batzuetan behintzat, *ondok* esangura bi dituela gutxienez, artikulua honetan dagokion arloan. Bata, “aldamenean, alboan” posposiziotzakoen adieran; bestea, “ostean, gibel, ondorik, ondotik, ondoren”-en adieran:

ONDO: 1 (c), lado, *côté*. (...) -2 (c), luego, à continuación: ensuite, à la suite, après. (R. M. de Azkue, Diccionario Vasco-español-francés, 113 or.)

Ez Euskaltzaindiaren, ez P. Goenagaren adibideetan ez da ageri, nik uste, aipaturiko zein esanguratan dauden, sekuentziak bere hutsean ematen dizkigute-eta, ezelako kontestu barik.

Aurre dela-eta ia zenbatgura adibide eman ditut. *Ondoren* beraren bidezko adibide bakarra ere ez dut, ez idatzizkorik ez entzunikorik.

Baina frogatu uste badut ere “Izen bizidun komun + posposiziotzakoa” egitura erabiltzen dela *aurre* posposiziotzakoaren bidez, ematen du *ondoren* bitartez ere ez dagoela zoztorrik delako estruktura ikergaia baliatzeko euskararen beraren aldetik. Nahikoa litzateke gizartean izatea edo sortzea egoera egokia “Izen bizidun komunak+ondo” estruktura aztergaiak eskatzen duen nozioa adierazteko.

Jarraian *ondori* buruz daukadantxoa azaltzen ahaleginduko naiz dituen adiera bietan: lehenengo adieran, hots, *alboarenean*, geroago, 3.A.7. puntuan, emanen ditut adibide batzuk beren-beregi asmatuak; bigarren adieran, *osteren* berdintsuan alegia, 3.A.7. puntuan emanen baditut ere sakonago adibide batzuk bertze batzuk paratuko ditut hemen atoa, baina *ondo* bidezkoak barik beronen arte, *ondoren* eta *ondotik* baliokideen bidezkoak:

a. Atze

Hona J. M. Mocoaren *Repertorio de locuciones*etik jasoriko adibide bat:

54791. Ordura arte ezta asitzen andre-gei atzean, illargi beteagaz buruen ganean. B-284-1,38, II, 2180)

baita J. A. Mogelen *Peru Abarkako* beste bi:

...mutillok bere eztitu inok ikusiko neskatilla atzian (100)

Atxurren, lajetan, ira batuten, landara jorraan ta biargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilli arren, eztarue ain erraz estulik atera; ez osagille edo mediku atzian ibilli. (62)

eta, hondarreko, Luis Michelenaren *Orotariko Euskal Hiztegi*ko bertze bi:

Berrogei urte neska atzian/dabillan mutilzar bati. BEnb NereA 107 (269)
Geiago nekau бага, aberats atzean / (...) (III, 268)

b. *Ondoren*

Udaran-da, jai-arratsaldeetan joaten giñan aita ondoren ikustaldia ematera, eta antxe larratzen ziran negurarte,... (Zinkunegi, A, 18 or.)

c. *Ondotik*

Atso madarizione hori, erriente ondotik, heldu duk gure aitzinera, haur guziak, bat bertzearen ondotik,... (L. Michelena 1987, 469 or.)

Orain arte aipaturiko *atze*, *ondoren* eta *ondotik* bidezko adibideon ordezesan daitezke eta beharbada esan ere egingo dira nonbait, hurrenez hurreneko esaldiok:

- ... **andregai ondoan**
- ... **neskatilla ondoan ...**
- ... **osagile edo mediku ondoan ibili ...**
- ... **joaten ginen aita ondoan ...**
- ... **erriente ondoan ...**

Euskara mintzatuan ere badut adibide bat jasoa Juan Martin Elexpurrengandik ("Jon neska *ondorik* dabil"). Berak dioenez, normal erabiltzen dute hiztun batzuek Bergara aldean.

3.A.3. ATZE (OSTE, GIBEL,...)

Posposiziotzako hauek ere arazo barik gaineratzen zaizkie izen bizidun komuneei:

Hona hemen J. M. Mocoaroren *Repertorio de locuciones* harturiko bat:

54791. Ordura arte ezta asitzen andre-gei atzean, illargi beteagaz buruen ganean. B-284-1,38, II, 2180 or.)

Jarraian beste bat J. A. Mogelen *Peru Abarkakoa*:

...mutillok bere eztitu inok ikusiko neskatilla atzan (100)

Atxurren, lajetan, ira batuten, landara jorraan ta biargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilli arren, eztarue ain erraz estulik atera; ez osagille edo mediku atzian ibilli. (62)

Hurrengoak Luis Michelenaren *Orotariko Euskal Hiztegitik* daude jasoak:

Berrogei urte neska atzian/dabillan mutilzar bati. BEnb NereA 107 (269)
Geiago nekau бага, aberats atzean /(...)AB AmaE 281. (III, 268)

Azkenengoa A. Zinkunegiren *Bizi naiak lege Zorrotzaketik* hartu dut:

Udaran-da, jai-arratsaldeetan joaten giñan aita ondoren ikustaldia ematera,
eta antxe larratzen ziran negurarte,... (18)

Atze posposiziotzakoa iri dagokionez, Miren Azkaratek ere ohartxo bat egi-
ten bere *Hitz-elkartuak euskarazen*:

Izen elkartuak osatzen dituzten gain, aurre, atze, barru, ondo... mugaki-
zunez osatutako adibideen artean, badaude, azkenik, postposizio gisa hartu
beharko lirakeen zenbait ere. Esaterako *diru atzian* (23), *ardi atzetik*
(20), *osaguille atzian* (08), *olerki gogai atzetik* (12)... adibideetan atze-k
jatorrizko adiera, “atzeko alde”, galdu egin du, atzetik ibili, atzetik joan
esapideetan duenaren parekoa hartuaz. Ezin daiteke esan, beraz, goiko esa-
pideok eta ate atzian erabat berdinak direnik. Eta alde horretatik atze-k
hartzen duen kasu marka ere ezin da edozein izan -n edo -tik izan behar
du (ez -ra ere: *osagile atzera joan da) (400,401)

Euskara izatez gauza baldin bada esateko

Juez aurrean/aurrera/aurretik
Lagun aurrean/aurrera/aurretik

Neska atzean/atzetik
Mediku atzean/atzetik

begitantzen zait “osagile atzera joan da” erabiltzeko ez dagoela ezelako
debekurik euskararen aldetik. M. Azkarateren sekuentzia eta antzeko beste ba-
tzuk behar izan ez direlako ez dira sortu edo gure eguneroko bizitzan sekuen-
tziok aditzen ematen dituzten prozesuak iruditu gaitzak direlako, ez direlako
erraz imaginatzen. Arazoaren untzea edo giltza, behin eta berriro erran dugu-
nez, estralinguistikoa da, hizkuntzaz kanpoan dago. “Osagile aurrera joan da”
hitz-kateak funtzio bat dauka, nozio bat adieratzen du: “osagiletara-edo joan
da”. Era berean “osagile atzera joan da” sekuentziak ere izan dezake bere kon-
tzeptua, nozioa, gure mendebaldeko zibilizazioan iruditu nekeza-edo, erabil
ezina-edo oraingoz. Baina jazo, jazo daiteke orain ez bada laster batean edo
inoizko denboraren batean, kondizio egokiak gertatuz gero gizartean. Edo da-
goeneko non-edo-nongo zibilizazioaren batean jazotzen da jazo agian, edo jazo
daiteke.

3.A.4. ARTE

Patxi Goenagak dio *arte* bidez *-en* atzizkia ez erabiltzeko erregela ez dela
hain hertsia. Ni ere ados nator berarekin, izan ere, nire irudiko, arruntaren
arruntak gertatzen zaizkit genitibo marka bako sekuentziok:

... neska artean ...
 ... jende artera ...
 ... lagun arteko bazkariak ...
 (...)

3.A.5. GAIN

Batzuek “zaldi gainera” igotzen dute. Era berean umeek atsegin dute *gizon gainean* ibiltzea, gizonak lau oinean edo pataka dabiltzala.

Zezenketa mota bati “zaldi-gaineko torea” deritzo. Igual egun batean *gizon-gaineko* torea ere asmatzen duten, izan ere urte gutxian inon diren joko eta olgeta sortu eta sortzen ari dira munduan barrena. Eta nik proposaturiko sekuentziak inondik egiten ote du huts?

Emakume bati itaunduz gero “Zelan egiten duzu narrutan gustoren?” badauka ihardesterik, nik uste, honetara

Nik **gizon gainean** egiten dut larrutan gustoren

3.A.6. AZPI

Azpiren adibiderik ez badaukat ere, ez entzundakorik ez idatzitakorik, nire ustez ez dago batere problemarik erabiltzeko kontestu batzuetan izen bizidun komun en ondo-ondoan, bitarteko atzizkirik gabe. Berbarako:

Menderen mendetan egon da emakumea **gizon azpian**

Inoizkoren batean gizona egonen da **emakume azpian**

Gainen gainean esandako hondarreko esaldiak ere balio digu honetarako ere

Nik **gizon azpian** egiten dut larrutan gustoren

Beti ere zelan edo nola galderaren erantzuna delarik.

3.A.7. BESTERIK

Orain arte ahalegindu naiz erakusten zer-edo-zelan “Izen bizidun komunak + leku esangurako posposiziotzakoak” estruktura aztergaia erabiltzen dela erabili. Horretarako han-hemenkako datu batzuk eman ditut frogagarri, eta beste batzuk beren-beregi sortu, uste baitut posposiziotzakoan erabil-eremua ez dagoela behar bestean garatuta. Gainera, azaldu dut zergatik dagokeen gaitzetsita aipaturiko estruktura gramatiketan.

Hemen adibide gehiago eman gura ditut aitzinekoen indargarri eta sendogarri, baina hiru esanguratara zedarritua: batetik denbora esanguran eta, bestetik, iharduera eta agente esanahietan. Adibideotatik batzuk erabiltzen dire-

lakoan nago, edo behintzat ulerterrazak dira; bertze batzuk, propio sortuak dira, baina uste dut hauek ere ulergarriak jazoko direla.

3.A.7.1. Denbora esanguran

Gure egitura aztergaiak zenbait kontestutan denbora adiera dauka. Eta horixe landuko dut hemen.

Lehenengo eta behin, erakutsi gura dudana hobeto aditzeko, entelegatzeko, beste adibide batzuk emanen ditut, ulertzeko errazagoak.

Euskaraz erabiliak ere erabiliak dira, erraterako, ondoko esaldiok:

Gerra aurean (aitzinean) Ameriketara egin nuen alde.

Meza ondoan (ostean, gibelean) pilotan egiten genuen.

Luis Michelenaren hiztegian ere badira hainbat:

Negu aitzin, dena lan. Ib. 117. (I, 459)

Pazko aitzin ditutzu Egurgin errege. Ib. 23. (I, 459)

Bertzea sorthu zen, 518 urthe Yesus aintzinean. Ib. 72. (I, 464)

Azpitarraturiko sekuentziok, zertan esanik ez, denbora esangura dute.

Jakintsuek diotenez, gizonok edo gizakiok gizon izan aurretik izakiak izan ei ginen. Ideia hau kontutan hartuta erran ditzaket hurrengo esaldiok:

Ez dakigu zelakoa zen **gizon aureko** izakia.

Zelakoa izango ote da **gizon ondoko** dena delakoa?

Zelan biziko ote da gizakia **gizon ondoan**?

3.A.7.2 Iharduera eta agentea esanguretan

Esangura bi hauetan zelan erabiltzen diren posposiziotzakook ulertzeko joko dut batetik, baserriko lan mota batera eta, bestetik, probalekuetako beste behar bat edo bestera.

Bada baserrian behar mota bat, soroetan egiten dena idien bidez lur-behritzen, iraultzen, e.a. Behar honetan idi aurean pertsona bat joaten da gidari lana-edo egiten. Lagun hori *itaurrean (idi aurean)* aritzen da. Eta kontestu honetan arrunt-arruntak dira ondokoak lako esaldiak:

Urlia gaur **idi aurean** ari da beharrean

Sendiak gaur **idi aureko** dihardu

Ez dakit *idoan* lan egiten dutenei buruz hurrengoak bezalako esaldiak erraten ote diren:

Urlia **idoan** ari da beharrean

Sendiak **idoan** dihardu egiten

Baina aipatutako behar mota eginez gero, ez daukat dudarik goiko esaldiak zuzenak direla.

Era berean, behar izanez gero, ez dago euskararen beraren aldetik ezelako trabarik hurrengo esaldiok ere errateko

Urlia **idi atzean (ostean,...)** ari da beharrean.
gainean

Sendiak **idi atzeko (osteko,...)** dihardu egiten
gaineako (...)

Eta idien gainean esanikoak balio digu, behar izanez gero, bertze animalia batzuentzat ere: zaldi, mando, asto, zezen,... Nahikoa da gizartean aipatutako lako iharduerak adierazteko premia izatea, euskararen aldetik ez dago-eta debekurik.

Eta badira Euskal Herriko probalekuetan, batzuetan behintzat, zenbait proba, hala nola, idi- eta zaldi-probak. Eta ez da batere gaitza imaginatzen probotan goian aipaturiko iharduera-eta agente-lanak, esate batera, *zaldi-aurrean* eta *zaldi-aurreko* hurrenez hurren.

Probalekuetan bada beste dema mota bat “gizon-proba” izenekoa, lantzean behin-edo egiten dena. Bertan gizon batek harri bat tatarrez edo narraz eroan behar izaten du, idi probetan egiten den antzera.

Aipaturiko gizon-proba motan laguntzaile bat edo gehiago izaten dira: bata, aurrean behintzat; bestea, ondoan. Biotarik zeinek bere behar mota egiten du. Ez dakit izenik dutenik ere, baina egoera honen berri jakinda, trankil-trankil esan ditzaket ondoko esaldiok:

Gaur urliak dihardu **gizon aurrean** edo **ondoan**
Atzo sendia aritu zen **gizon ondoko** edo **aurreko**

Aipatu sekuentziok ez dakit erabiltzen diren. Beharbada mintzatzaille batzuek esan ere esaten dituzte, baina esan ezik ere, zerk eragotziko luke esaldiok erratea?

Era berean, gizon probotan kondizio egokiak gertatuz gero esan litezke ondoko sekuentziak:

... **gizon atzean (ostean,...)**
gainean (...)

... **gizon atzeko (osteko,...)**
gaineako (...)

nahiz eta beharbada egundo esan ez diren.

Eta posposiziotzakoon bidez beste hainbat eta hainbat adibide ere sor daitezke.

Egunen batean halako “andre-proba” motaren bat sortuz gero -dagoeneko non-edo-non sorturik ez badago- zerk edo nork debekatuko liguke esatea *andre aurrean* (*ondoan*) edo *andre aurreko* (*ondoko*)? Euskarak ez behintzat.

Uste dut frogatua-edo geratu dela “Izen bizidun komuna + posposiziotzakoak” egitura aztergaia erabiltzen dela, eta anitzez gehiago ere balia dezakegula.

3.B. IZEN BIZIDUN PROPIOAK + POSPOSIZIOTZAKOAK

Egitura aztergai honi buruz erakutsi gura nuke zuzen egon daitezkeela hiru gramatiketan debekaturiko **Andoni aurrean*, **Koldo aurrean*, **Pedro atzean* eta **Alejandro azpian* sekuentziak.

Izan ere, izen propio bati badago gaineratzerik artez posposiziotzako batzuk, ezelako tarteko barik, inolako atzizkirik gabe, beti ere denbora esanguran.

Euskaraz satsa beste erabiltzen dira hurrengook bezalako esaldiak, hiztun batzuen edo askoren artean:

Halako aztarna **Kristo aurrekoa** (**ostekoa**) da
San Juan aurrean (**ondoan**) pattal ibili ginen
Franco aurrean (**ostean**) hobeto bizi ei ginen

Era berean erran dezaket:

Ez dakigu ontsa nolako euskara egiten zen **Ettxepare aurrean**
Koldo Mitxelena aurreko (**osteko**) euskal hizkuntzalaritza

eta hondarreko esaldi hau laburrago honetara

Koldo aurreko (**ondoko**) euskal hizkuntzalaritza

Jakina, esaldi hau soilik erabil daiteke zein Koldoren gainean dihardugun dakigun kontestuan, Koldo asko daude egon-eta.

Egin dezagun badugula Andoni izeneko euskal hizkuntzalari apartaren bat. Eta etorkizun hurbilean edo inoizkoren batean izango da esaterik

Andoni aurreko (**ondoko**) euskal hizkuntzalaritza

Esaldi honek, goragokoaren moduan, eskatzen du kontestu jakin batzuetan baliatzea.

Honelako esaldiak garauntzeko ez dugu ezelako debekurik euskararen beraren aldetik. Izan ere, gizartean bertan jazo behar dira kondizio egokiak aipatutako lako edo antzeko esaldiak erabiltzeko. Horra zergatik *Andoni aurrean* eta antzekoak ondo dauden, eguneroko bizitzan gertatuz gero horretarako kondizioak.

Orain arte *aurre* eta *ondo*, edo euron baliokideen bidezko adibideak jorratu ditut, eta denbora esanguran jorratu ere. Eta horrenbestez frogatu dut *Koldo aurrean* eta *Andoni aurrean* sekuentziak erabil daitezkeela.

Alejandro azpian hitz-katearen erabiltzeari dagokionez, antzeko bat badaukagu bizi ere bizi oraindino euskaldunok gogoan, batzuek bederen:

Franco azpian batzuk ez tizan bizi ei ziren.

Izen propioa izan daiteke, berbarako, baserri baten izena eta, ondorioz, esan ditzaket honakook:

Franco azpian patari bat ikusi dute
gainean
aurrean
ondoan
atzean

Alejandro izan daiteke baserri edo leku-izen bat ere, edo historia unibersala apur bat dakienak gomutan izango du Alejandro Magno famatua. Beraz, Francoren bidez sorturiko esaldi berberak edo antzekoak sor daitezke Alejandroren bitartez ere.

Pedro atzean sekuentziak buruko min gehiago eman lezake esaldiak sortzeko, baina ez trabarik dagoelako euskaran bertan, euskararen kodigoan, ez-pabere, egotekotan, euskaraz kanpoan, behin eta berriro esan eta ustez frogatu dudanez.

Arte posposiziotzakoaren bidez ere adibide batzuk ateratzen zaizkit. Egin dezagun seme batzuk ditudala txirringulurariak. Eta Indurain izateko bidean daudela, edo hala ikusten ditut aita begiz. Kontestu honetan ez da bat ere raroa honako hau esatea:

Indurain artean bizi naiz.

Arte posposiziotzakoaren bitartez edozenbat adibide sor ditzaket horrelakoak. Nahikoa da gaur eguneko kirolari ospetsuak edo izandakoak hartzea (Ronald, Guerrero, ...).

Arte bidezko sekuentziotan izen propiook izen komun bilakatu dira kontestuotan, denotatetik edo izendatetik pasatu dira konotatzera. Alegia, referente bakarra adieraztetik halako ezaugarri multzoko elementuak adieraztera.

Eta bertze posposiziotzakoaren arartez ere eman litezke adibideak, egunero bizitzan jazoz gero kondizio beharrak. Euskararen beraren aldetik, behintzat, ez dago ezinik.

4. KONKLUSIOA

Sartaurrean esandako moduan helburutzat jarri dut ondoko egiturek

1. "Izen bizidun komunak + leku esangurako posposiziotzakoak"
Gizon ondoan

2. "Izen bizidun propioak + leku esangurako posposiziotzakoak"
Koldo ondoan

erabili, erabiltzen direla edo erabil daitezkeela eta uste dut, oso erraturik ez banabil, frogatu dudala. Horretarako eman ditut batetik, datu egiaztagarriak eta, bestetik, sorturiko adibide sinesgarriak.

Nire ustez, posposiziotzako aztergaiak genitibo marka (-en) derrigor behar duten uste ustela dator gaztelaniaren imitazioan eman izan direlako arauak edota kontzeptu bi nahasi izan direlako: batetik, egestura ikergaiak erabiltzeko euskararen kodigoa eta, bestetik, egitura aztergaiok zeintzuk kondiziotan erabiltzen diren gizartean. Eta kondiziook anitzetan ez baitira jazo, edo jazotzeko iruditu gaitzak dira.

BIBLIOGRAFIA

- AZKARATE, Miren, 1990, *Hitz Elkartuak Euskaraz*, Donostia, Deustuko Unibertsitatea (Donostia).
- AZKUE, Resurrección M. de, 1909, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, 2 lib., (1969, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao).
- 1923-25, *Morfología Vasca*, (1969, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca)
- 1989, *Latsibi*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- GOENAGA, Patxi, 1980, *Gramatika Bideetan*, Erein (2. argitalpena)
- EUSKALTZAINDIA, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbao, Euskaltzaindia.
- MICHELENA, Luis, 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- MOCOROA, Justo M., 1990, *Repertorio de locuciones del habla popular vasco*, 2 lib., Labayru.
- MOGEL, Juan Antonio, 1990, *Peru Abarka*, Euskal Editoreen Elkarte.
- ZINKUNEGI, Agustin, 1995, *Bizi Naiak Lege Zorrotzak*, Auspoa, Oiartzun.